

Funtsezko baliabideak

Duna enpresak baliabide aktiboak beahrko ditu enpresak egoki funtzionatzeko:

Baliabide fisikoak:

Instalazioak: ez dugu ekoizteko instalaziorik egiteko lokaik edukiko.

Bulegoak: lokal bat izango dugu, alukairuan, non gure produktuak sortuko ditugun. Hemen salmentak eta deiak kontrolatuko ditugu, enpaketazioa ez ezik.

Ibilgailuak: ez dugu ibilgailu propiorik beharko entregaketa egiteko, beraz, enpresa bat kontratatuko dugu eta horrela modu erresago batean banatuko dira produktak. Guk ezin dugulako adibidez, Madrilera joan produktu bat etxe batera entregatu, beraz kontratatutako enpresarekin erresagoa da entregatzea.

Makinak: ez ditugu produktuak ekoizteko makinak behar izango piezak erosiko ditugulako, baina paperak inprimatzeko inprimagailuak bai, edo ordenagailu eta telefonoak bezeroekin kontaktuan egoteko.


Sistema informatikoak: software informatiko bat beharko dugu. Web orri bat egiteko aplikazioa eta Wi-Fi-a.

Salmentarako puntuak: web-orri propioa izango dugu. Amazon, Fnac eta MediaMarkt. Eta ekoizten diguten enpresetan (Tous, Pandora eta Swarovski).

Banaketa sarea: gure produktuak Espainian zehar banatzeko banaketa enpresa bat kontratatuko dugu.

Baliabide intelektualak:

Marka: Gure enpresak marka bat sortu du, Duna deitzen dena eta marka horri logo bat sortu diogu, honako hau da:



Jabego- ezagutza eta patenteak: Bitxiak egiteko ezagutza dugu gure enpresan, horregatik gure proiektua bitxiekin lotuta dago. Gure proiektua patentatuko dugu, inork lapurtu ez dezan.

Egile-eskubideak: Gure proiektuak ez ditu egile-eskubiderik edukiko, ez delako beharrezkoa.

Datu-baseak: Gure bezeroen datu baseak, webgunean egongo dira, registratu ondoren haien datuak gordeko dira, (izena, abizena, jaiotze data, helbidea,...), hortaz, haien urtebetzetzea denengan, mezu bat bidaliko diegu deskontu batekin. Gure markak ez du fideltasun txartelik edukiko, gure deskontuak bakarrik black friday-en, urtebetetzeetan, eta horrelako egun berezietan izango dira.

Elkarteak: Gure enpresak, Swarovski, Tous eta Pandora elkarteekin egingo dugu lan, haiei zalantzak galdetu ahal dizkiegu eta datuak pasatu ahal dizkigute.

Giza-baliabideak:

Sormena: gure sormenezko talde kreatiboa gu geu gara. Proiektua aurrera eramateko lan talde bat behar dugulako.

Ezagutza: jendea gure produktua ezagutzeko, kartelak jarriko genituzte gure herritik. Baina hau ez da nahikoa, beraz sare sozialetan argazkiak eta bideoak igoko genituzke biralak egiteko eta jendea gure produktuaz ohartzeko. Eta saiatuko ginateke telesaietan edo irratietan iragarkiak jartzen.

Gaitasun komertziala: gure taldean Uxue izango litzateke gaitasun komertziala duena. Bezeroekin hitz egiteko gaitasuna duelako eta haiei konbetsitu zielako gure produktua erosteko.

Finantza-baliabideak:

Finantza baliabideak lortzeko bi bide ditugu: eskudirua eta kreditu-lineak. Bakoitzak 3.000€ jarriko ditu bere poltsikotik eta bankuari 100.000€-ko prestamoa eskatuko diogu, Swaroski, Tous eta Pandorari ordaindu ahal izateko haiek gure bitxiak egin dezaten, gure lokala alokatzeko ere diru hori erabiliko dugu.

Eskudirua: taldeko pertsona bakoitzak diru kantitate bat jarriko du. Bakoitzak 3.000€ jarriko ditu.

Kreditu-lineak: 100.000€-ko mailegu eskatu. Hasierako nominak ordaintzeko, lokalaren alokailua ordaintzeko, bitxien ekoizpena ordaintzeko eta promozioak egituratu eta merkatura egokitzeko